


# 2019ko Hiriko Udalekuak

BARAKALDO



## Data, lekuak eta adinak

Hainbat hiri-udaleku eskainiko zaizkie uztailean 2007tik 2015era bitartean (biak barne) jaiotako umeak dituzten Barakaldon errolatutako familei.

### 1. txanda

Uztailaren 1tik 12ra. 10 egun.

#### 1 aldea: Gurutzeta

Juan Ramón Jiménez Hl. 90 Toki.

#### 2 aldea: Barakaldo

Ibaibe Hl. 110 toki.

Arteagabeitia Hl. 110 toki.

Alkartu Hl. 110 toki.

### 2. txanda

Uztailaren 15tik 20era. 10 egun.

25a izan ezik, jaieguna da eta.

#### 1 aldea: Gurutzeta

C.P: Juan Ramón Jiménez. 80 plazas.

#### 2 aldea: Barakaldo

Ibaibe Hl. 100 toki.

Arteagabeitia Hl. 100 toki.

**Plaza horien % 5 ezintasun fisiko eta/edo psikikoak dituzten umeentzat erreserbatuko da, betiere mediku-ziurtagiria duten ezintasunak onartuko dira. Aipatu txostena erantsi beharko zaio eskabideari.** Baztertu egingo dira mediku-ziurtagiririk ez duten ezintasunak, hala nola ikasteko nahasmendua, jokabide-nahasmendua, etab.

Txanda bien aukera egin daiteke, baldin eta familiak bere umea udalekuen txanda bietara bidali nahi badu. Eskertuko genuke, aukera hori benetan erabiliko dutenek bakarrik egingo balute eskaria. Kasu horretan, izena emateko fitxa bakarra bete beharko dute, eta txanda biak adierazi.

Lehenengo txandan bezala bigarrenean ere zein ikastetxe duzuen nahiago epealdietako bakoitzerako.

Antolakuntza arrazoiak direla tartean, eskaintako ikastetxeen ordez beste ikastetxe batzuk eskaini ahal izango dira.

## Jantokia

Toki guztiek izango dute aukeran jantoki zerbitzua. **Intolerantzia edo/eta alergia eragiten**

**baldin badiote norbaiti elikagaiek, izena-emateko orrian adierazi beharko du, eta hari, adierazitako intolerantzia edo alergia egiaztatzen duen mediku-txostena erantsi.**

## Ordutegia

Parte-hartzaile guztientzako sarrera ordutegia 8:15etik 9:00etara bitartekoa izango da. Irteera-ordutegiak desberdinak izan daitezke jantoki zerbitzua dela eta, egindako aukeraren arabera. "Jantokia ez" aukera egin dutenentzako irteera-ordutegia 14:00etatik 14:15era bitartekoa izango da. "Jantokia bai" aukera egin dutenentzat, berriz, 15:00etatik 15:15era bitartekoa.

## Hizkuntza

Euskara. Hala ere, euskara maila ez da baldintza erabakitzailea izango. **Udalekuetan egingo diren jardueretako batzuk ingelesez egingo dira.**

## Izena emateko epea

Maiatzaren 14 arte. Izena epe horretatik kanpo eman dutenak itxaron zerrendan geratuko dira.

## Izena emateko lekua

### Barakaldoko kultur etxeetan

Burtzeña, Gurutzeta, Retuerto, Zuhatsu eta Clara Campoamor, ohiko ordutegian.

### Gazte Bulegoan

Donibane kalea, ohiko ordutegian.

### Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan

Barakaldoko Udala / Clara Campoamor eta Gurutzeta Zentro Zibikoan, ohiko ordutegian.

## Prezioa

Hileko diru-sarreraren araberako tarreak.

### 1. tartea:

0-786,39 € eta/edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familiak edo/eta GET programan parte hartzen duten adingabeak, edo/eta Harrera Etxeetako adingabeak.

Jantokirik gabe 11,20 €

Jantokia barne 11,20 €

### Tramo 2:

786,40tik 869,90era

Jantokirik gabe 22,40 €

Jantokia barne 22,40 €

### 3. tartea:

869,91tik 956,02ra

Jantokirik gabe 32,60 €

Jantokia barne 32,60 €

### 4. tartea:

956,03tik 1.050,67ra

Jantokirik gabe 52,70 €

Jantokia barne 73,30 €

### 5. tartea:

1.050,68tik 1.154,69ra

Jantokirik gabe 74,30 €

Jantokia barne 102,90 €

### 6. tartea:

1.154,70etik gora

Jantokirik gabe 105,90 €

Jantokia barne 146,60 €

Azken tartean daudenek izan ezik, beste guztiek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera: familia unitateko kide guztien errenta aitortpena edota Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzailea dela adierazten duen Lanbideren agiria, edota adingabeak GET udal programan parte hartzen duela egiaztatzen taldeko koordinatzaileak egindako ziurtagiria. Azken bi kasuetan ez da eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko, eskatzaileek Udalari datuak egiaztatzen esanbidezko baimena eman badiote.

Tarreak kalkulatzeko, baterako aitortpenak badiara, likidazio-oinarri orokorra zati 14 egin behar da; eta banakakoak edo bereziak badiara, berriz, kide bakoitzak aurreko eragiketa egin behar du, eta ondoren, emaitzen batuketara.

## Zozketa

Tokiak zozketa bidez esleitu dira maiatzaren 17an. Zerbaki bat aterako da jaso diren eskabide guztien artean, eta ateratako zerbakitik abiatuta osatuko dira eskaintzen diren txanda eta ikastetxeetarako onartutako zerrendak.

Barakaldoko Udalaren web orrian jakinaraziko da zozketaren emaitza, umea onartua izan den ala ez adieraziz, baita onartua izatekotan, udalekua egingo duen ikastetxearen berri ere emanez.

## Ordainketak

Udalekuan onartua izanez gero, ordainketa agiria bidaliko zaio familiari, eta hari erantsirik, datuak egiaztatutakoan ordaindu beharreko zenbatekoa eta egin beharreko ordainketaren eguna.

Aipatu epean ordaindu ez bada, plazari uko egin zaiola ulertuko da; beraz, libre geratu den plaza itxaron zerrendako batek beteko du, aukeraren berri eman ondoren.

Ez da matrikularen dirua itzuliko, justifikatutako gaixotasun larriren bat ez bada.

**Izena emateko leku bakoitzean eskatu ahal izango da ordainketa-agiria, adingabearen izen-deiturak nahiz izen-emate zenbakia adierazita.**

Plaza lortu ondoren, uko egin nahi dioten familiak posta elektronikoa bat bidali beharko dute [laboin@barakaldo.org](mailto:laboin@barakaldo.org) helbidera, eta han adierazi, adingabearen izena eta zein ikastetxetarako lortu duen plaza.

## Informazio saioa

Ekainaren 25ean, informazio bilera egingo da Clara Campoamor Zentro Zibikoan, 18:00etan, Barakaldoko 2 aldeko familientzat, eta Gurutzetako Zentro Zibikoan, berriz, 19:30ean, Gurutzetako 1 aldeko familientzat.

Elkarbizitzarako eta baloreak ikasteko espazioak dira udalekuak, eta horregatik egon behar dute bizikidetzara eta lankidetzara arauen mende. Horrenbestez, parte hartzen duten umeetako batek arauak betetzen ez baditu, udalekutik kanporatua izan daiteke.